

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3856

867/2020 EBAZPENA, abuztuaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez deklaritzen baita María Teresa Bacigalupe Artacho andrea Osakidetza Kalitateko zuzendariordearen kargutik kentzea, berak hala eskatuta.

Osakidetza zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 538/2017 Ebazpenaren bidez (2017ko apirilaren 27ko EHAA, 80. zk.) María Teresa Bacigalupe Artacho andrea Osakidetza Kalitateko zuzendariorde izendatu zen.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearekin, azaroaren 11ko 255/1197 Dekretuarekin eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenekin, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Teresa Bacigalupe Artacho andrea Osakidetza Kalitateko zuzendariordearen kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eginiko lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko abuztuaren 26ko lanaldia bukatzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.